

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jokin Muxika Lasa

*Donostia,
Gipuzkoa
(1932)*

Aurkibidea



Biografia



Donostiarra, Parte Zaharrekoa, bertan bizi izan da beti. Aita beasaindarra zuen eta ama Ormaiztegikoa. San Jeronimo kalean jaio zen; Mujika taberna zuten, eta umetatik trebatu zen tabernako lanetan. Egunero-egunero zegoen zabalik. Hainbat tokitan ibili zen eskolan; lehenengo, Muñoaren eskolan. 30 urterekin ezkondu zen. Tabernaren jabea izan zen urte askoan. Gero, Gipuzkoako diputazioan hasi zen lanean.

Zintak

DON-011

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-09-14
- **Iraupena:** 103 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Agirre, Eli

Pasarteak

1. Tabernako eta kaleko giroa umetan

- **Erref:** DON-011/002
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:03:00. **Bukatu:** 00:06:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Tabernari lotuta hazi zen. Gerra aurretik, asaltoko guardiak ibiltzen ziren egurra ematen Parte Zaharrean. Haien janzkera. Tabernako giroa: gizonezkoak bakarrik. Matxismoa; aurrerakoienek emazteekin paseatzen zuten. Bestela, bakoitza bere aldetik.

Transkripzioa

-Eta ze oroitzapen daukazu umeta... zu mutikua ziñanekuak?
-Bueno, e, pixu baten bizi edota taberna baten bizi, oso ezberdiña da,

zeatikan e... umetan garaiya baiño lenago gauza asko ikaste(n) dia / ikasteiya/ tabernan; entzuten ta /da/... Eta bueno, oroitzapena ba oso desberdiña, oso bizimodu ezberdiña zan. Goatzen naiz oaingo zalapartak, ertzañak diala ta polizik diala ta, goatzen naiz nik izango nitun hiru urte t´erdi o, gerra aurretik, gerra hasi baiño lehenago, nola irixten zian, ordun zian “este... guardias de asalto”. Bulebarrea, eta zituzten autobus batzuk irikiyak, ta danak ateak zian, eta danak batea salta... saltatzen zuen, ta San Jeronimo kalean jendea korrikan, eta haiyek atzetik... Haik, gaiñea, haiyek eman iten zuen ondo, e! Eta ni txikiya, baiño tabernan atian ta /da/ goatzen naiz nola... horrekin goatzen naiz, bai.

-Eta nola zeuden jantzita, gogoratzen dezu?

-Ez dakit, ez naiz goatzen. Uste (d)et belauneaiño bota batzuk eo... ezberdiñak. Oaingo... garai bateko... nazin antzeko zea batzuk.

-Eta tabernan ze, ze giro egoten zan?

-Tabernan ba... Tabernan ba giroa zan... gizonezkoak bakarrik. Emakumek gizonakin baten bat sartzen baldin bazan eo... emakume bat bakarrik sartzen baldin bazan, um: “Zein ote da hau!”. Eta adibidez oso e... zibilizazio matxista zan. Emakumek etxen, ume asko eta zea, progreenak adibidez igandetan, fubola bukatu eta gero; fubola hasten zan Atotxan hiru t´erditan, zeatikan ordun fokok-eta ez zeren, eta bost eta erditako neguan ba illunduta... ta oso goiz hasten zian partiduak eta. Handikan etorri, ta batzuk emaztea hartu ta paseatzea pixkat. Baiño meriendatzeko garaiyan gizonak sartzen zian tabernan eta emakumek pastelerin. Ta gero kalia alkartzen zian berriz.

2. Txikitoen zergatia eta tabernako jana

- **Erref:** DON-011/003
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:06:00. **Bukatu:** 00:09:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Gizonek ardoa edaten zuten tabernan. Txikitoak hartzearen zergatia: etxean jende asko izaten zen, eta lanetik irtetea tabernara joaten ziren gizonak, traba ez egiteko. Tabernako jan-edana. Pintxorik ez zen egoten. Igandetan umeak aitekin joaten ziren tabernara, eta pastelak jartzen zituzten barran. Haragi egosia jartzen zen eta salda, tortillak, legatza.</p>

Transkripzioa

-Eta ze, ze eraten zan? Ze eraten zuten gizonak?

-Ardoa.

-Txikitoa?

-Txikitoa, bai. Txikitona ´re... beitu, esaten da txikiteoa, txikiteoa, baiño txikiteoak bere esplikazioa badu. Ordun txikiteoa asko zan. Beitu, etxiak zian txikiak, familik haundiyak: aiton-amonak, eta etxeako bat ezkontzen zan, eta ume asko. Ta /da/ ordun saloik eta ez zeon /etzeon/, bizitza iten zan sukaldean dana, eta ume ba gela batian hiru eo, ohi bakoitzian bi ta hola. Eta gizonak gehiyenak langilek zian, eo arotzak eo linternerok eo, e... eo igeltserok eo... eta lanetikan irten eta etxea jun, eta ordun baiñok ´e ez zeren /etzeren/, sukaldeko arraskan pixka bat txukundu... eta pixka bat

erropak eta aldatu, ta han traban zeren. Teleik ez zeon /etzeon/, ta kalea. Ta laun artian ba baxoerdik edatea. Gero, danak, ume guztik eta apaldu ta ohiyian sartzen zianian, ordun etxea apaltzea. Hori esplikazio oso interesantia da, zeatikan ematen du gizonak ba parranderok eo... beti ba kalen ta /da/ baxoerdik eaten ta /da/... bazun bere zergatia. Bai.

-Eta zuen tabernan edariya ta... jatekua ere egongo zan.

-Bueno, ez oain bezela. Oaingo pintxok eta hoiyek ez zeren /etzeren/. Horrek izan zun /izantzun/ bere... beitu, igandetean askotan ba emakumek etxen, bazkaiya iten, eta umek ba aitakin; emaztiak: "Bueno, eaman ume habek hemendikan buelta bat ematea". Baiño buelta bat ematea izaten zen bukaera alde zarren. Eta hasi giñan jartzen igandetean mostradorian pastelak, umeegatik. Bestela, hamaiketakua iten zan, baiño mahaiyan. Adibidez, haragi egosiya; orduan haragi asko ibiltze(n) zan salda iteko ta... ordun ez zegon /etzegon/ "ni"... ez, e, nola da? Kener, Knorrk eo Korn... bueno, hoi; oaingo Gallina Blanca ta istorik, ordun ez zeon, ordun haragiya. Eta haragi hura zerbitzen zan ba piparrakin o tomatikin o, hamaiketakua. Salda, eta gero hori. Eta mostradoren geo hasi zan pintxuak-eta jartzen. Atsaldetan bai, atsaldetan tortillak-eta, adibidez antxoan tortillak, e, bakallauan tortillak, legatz prijitua, mostradoren. Eta bokartak, zianian, ta / da/ holako gauzak jartzen zian mostradoren. Baiño pintxona gero hasi zan. Oain, berriz, hoi da inportantena.

3. Arrain saltzaileak

- **Erref:** DON-011/004
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:09:35. **Bukatu:** 00:10:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

<p>Bretxan erosten zuten arraina, kalean ere bai. Itsasontziak iristean, emakumeak kalez kale ibiltzen ziren arraina saltzen.</p>

4. Kaleko saltzaileen deiadarrak

- **Erref:** DON-011/006
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:10:43. **Bukatu:** 00:11:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

<p>Arrain saltzaileak deiadarka aritzen ziren, eta egunkari saltzaileak ere bai. La Unidad egunkaria eta razionamendua.</p>

5. Taberna eta eskola uztartuz

- **Erref:** DON-011/007

- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:11:44. **Bukatu:** 00:14:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Tabernan umetatik hasi zen lanean. Enkarguak egiten eta. Eskolara Kanpandegi kalera joaten zen, Muñoaren ikastolara. Muñoatarrak. Gerran itxi egin zuten. Don Eugenio Goia zen maisua. Gerraostean, karlista baten babesarekin, Nuestra Señora del Pilar ikastetxea jarri zuten.</p>

Transkripzioa

-Eta zu zenbat urtekin hasi ziñan tabernan lanian?
 -Ba txiki-txikitatik zerbaitetan. Baserritan bezela, lana danentzako zeon.
 -Ta ze, zeintzuk zian ume txikiyendako lanak?
 -Ba ez dakit, ba, ba gauzka bildu eo... zerbait ekarri eo, kaletik. Holako zeak.
 -Enkarguak?
 -Enkarguak eo hola zerbait, e, bai. Gero ez dakit hitz ein behar dan, baiño eskolako historia...
 -Bai, hori galdetu behar nizun.
 -Bai, bai. Gu hasi giñan Campanario kalen, Koruko Amaren ikastetxea zan. Muñoatarrak zian aberats batzuk, Bidanikok, eta oso euskaltzalek, eta haiyek jarritako eskola ta... bueno, ikastola. Eta han hasi giñan. Eta gerra etorri zan, eta itxi in zuten. Bi aldiz, bi aldiz bialdu zituzten kartak... Gure maixu jefea izan zan Don Eugenio Goya. Oain kaletxo bat eman diote hemen, Trinidadeko plaza hortan?
 -A, bai?
 -Bai. Eugenio Goya pasa... ez dakit, pasalekua, ez dakit ze jarri dioten. Donostiko gazte asko harrekin ibilitakok giñan. Bai, itxi in zuten, eta geoztikan jarri zuten "Frente de Juventudes" leku hartan; oain Kaialde, zaharran egoitza da, ta ikastola oain kendu dute hortikan; hor hasi zan, eta oain dakate hemen, Zuloaga... bilobak-eta hor dabilta. Eta bueno, ba gu danak kalen gelditu giñan eta Don Eugeniok eta... beak`e bizi behar zuen, eta guri eskola eman behar`e bai, eta antolatu zuten... Koruko Amaren ikastetxea zan, eta maixu bat bazan erdi karlixta eo, ta harren babesen eman zioten baimena irikitzeo "Colegio de Nuestra Señora del Pilar". Eta han jarraitu gendun.
 -Eta nun zan hori?
 -Hori zan hasieran, e, oain "sociedad" Euskal-billera badago... oian soziedade bat da, Euskal-bilera. Eta ordun lokala nonbait libre zegon ta /da/ han... Baiño gu txikiñak giñan e, Kostitutuzio plaza... enparantzan. Hemen, Kostitutuzion. Pixu baten, txikiñak, andereño batekin. Andereño, señorita esaten zan ordun. Eta hor hasi giñan, ta /da/ geo pasatzen giñan zeara.

6. Eskolan erdaraz

- **Erref:** DON-011/008
- **Iraupena:** 0:04:31. **Hasi:** 00:14:40. **Bukatu:** 00:19:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Erdaraz ikasten zuten eskolan, Konstituzio plazan. Besoa altxatuta abestu behar zuten; horrekin lotutako pasadizo bat. Frankismoak ezarritako liburuak zituzten. Pupitreak, tinteroak. Ikurrinak marrazten zituzten; don Eugeniok abisatzen zien inspektoria zetorreanean. Erabiltzen zituzten trikimailuak. Francoren erretratua nola estaltzen zuten.</p>

Transkripzioa

-Eta, e... euskeraz ez zian izango...

-Keba! Dana erderaz.

-Eta aurretik, Muñoan ikastolan?

-Ba ez naiz goatzen, oso txikiya nitzan. Ez naiz goatzen. Uste det euskeraz izango zala, bai. Eta hor, Kostin giñala, bueno, orduko aginduak ba... "Cara al sol" ta danak abestu in behar zian, "el himno nacional" ta /da/... "Viva España,alzada la frente hijos del pueblo español" ta danak abesten giñuzten, ta gaiñea hola. Eta nere bizitzako lotsik haundienetako bat izan zan /izantzan/, sekulan ez zait /etzait/ ahaztutzen; han ama, emakume bat zegon, Kostin, eta dana txintxo eamaten genun. Eta oain Sociedad Euskal-Billera dan hortan gizonezkoak zeuden: don Eugenio, don Juan, don Nicolas ta. Baiño leiyok zituzten "contraventanas". Eta iten zuten abesteko garaiyan itxi, eta kanpotikan entzuten zan, baiño besua ez zuten altxatzen. Eta gu horrea, hortikan joan giñanian, hiru o lau giñan ta /da/ danak hola. Danak gui parrez!

-Eta hori zenbat urtekin?

-Ba hori izango zan ba zazpi, sei-zazpi urtekin eo hola.

-Ta ez dezu ahaztu, e?

-Ez. Sekulan ez zait /etzait/ ahaztutzen.

-Eta han eskolan libururik-eta erabiltzen zenuten?

-Bueno, ordun liburuk zian ba gehiyenak ba goitik agindutakok, baiño gure don Eugeniok zeukan ohitura haundiya e... idazteko. Adibidez, giñuzten kuaderno haundik. Eta geografia ta historia ta dana, beak hitz ein eta guk idatzi. Eta liburuk ez giñuzten horrenbeste ibiltzen. Idatzita.

-Eta idazteko, tinta?

-Tinta, hoixe! Giñuzten zea, lau... lauentzako pupitrek, eta batek muitzen baldin bazun... baiño hola zulotan tinterok. Eta hola. Ordun boligrafoik eta ez zegon /etzegon/. Arkatza ta tinta. Eta bueno, gero dibujok´e asko iten giñuzten. Margotu ta, kuadernotan, e. Eta holaxe, eta... ikurriñak-eta iten giñuzten kuadernotan. Don Eugeniok, don Eugenioi asko zor diogu guk. Eta gero etortzen zan "este", ispektorea eta ordun abixatu ite(n) zigun don Eugeniok eta... garai hartan kola-ta ez zeren, eta "engrudo" esaten zan. Iriñakin-eta iten zan, kola bezela, eta iten genun ikurriña zeon orriya, bi orri...

-Pegatu.

-Peatu. Ta etortzen zan ispektoria eta: "Qué página más gruesa!". Ta gero, joaten zenean, berriz iriki.

-Eta hori, don Eugenio, nungua zan bera?

-Donostiarra.

-Donostiarra?

-Bai, bai, bai. Donostiar peto-pettoa. Eta hola. A, beste gauza bat. E, gela guztietan zeren eo Franco eo Jose Antonio Primo de Rivera eo. Eta

kristalakin, eta paperakin hola bolatxoak ein ta zas! Ta askotan koadroak eoten zian dana estalita.

-A, bai, e? Goitik behera?

-Bai, eta don Eugeniok ez zun /etzun/ ezer esaten. Ta halako batian: "A limpiar los cuadros, que viene el inspector!".

7. Parte Zaharreko eskolak

- **Erref:** DON-011/009
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:19:11. **Bukatu:** 00:21:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Mutillak ziren denak gelan. Hiru eskola zeuden Parte Zaharrean mutilentzat eta neskentzat bakarra, Elizaran. Placido Domingoren ama hantxe ibili zen, Pepita Enbil abeslaria; familia haren kontuak.</p>

Transkripzioa

-Eta, danak mutillak ziñaten? Bai, ez?

-Bai. Mutillak. Gero hasi zan, este, akademia bezela, bakar batzuk baiño bestela mutillak. Mutillak, hiru eskola zeren alde zaharren; Los Angeles, uain orfeioa daon hortan, gero Escuelas Públicas uain Orixe daon hori, Zuloaga, hori zan Las Escuelas del Ensanche Oriental, deitzen zitzaien, zeatikan San Juan kaletikan auskaldea, hori dana itxasoai jandakoa da, Donosti bukatzen zan San Juan kalia, eta harrei deitzen zitzaion La Universidad de la Parte Vieja. Zeatikan guk ordaintzen gendun, asko ez baiño ordaintzen gendun baiño hua zan escuela pública eo, eta beste bat praillena, de La Salle, baiño mutillak bakarrik. Neskantzako bakarra zegon hemen, Santa Marina ondón, monjak, Elizarán. Nere arrebak hor ibillitakok, ni baiño zaharragok baiño, hor ibillitakok danak. Eta hor ibilli zan, nola Plácido Domingo? Famosoa?

-Bai.

-Horren ama.

-Bai?

-Bai. Gero, hura're abeslaria izan zan, Enbil, Pepita Enbil, bai, zarzuela-ta, horren ama, bai. Eta hoiek zuten osaba, bueno, aman osaba zan Santa Mariko bikarioa, Don Agustin Enbil, getariarrak zian hoiek. Ta behin etorri da zea, Plácido Domingo honea ta gehigo ez da etorri, nik askotan pentsatzen det, ia ez dan goatzen kasta hemengoa dula.

-Ahaztuta...

-Ahaztuta eo nahita igual!

8. Animaliak eta umetako jolasak

- **Erref:** DON-011/010
- **Iraupena:** 0:04:37. **Hasi:** 00:21:13. **Bukatu:** 00:25:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna » Etxeko animaliak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Umetan, autorik ez zen ibiltzen. Astoarekin baserritar asko etortzen ziren. Animalia asko zegoen. Martina, Igeldoko baserritarra. Etxeetan katuak egoten ziren, saguengatik, baina txakurrik ez. Umetako jolasak: kanikak, futbola, barrene... San Telmoko plazan aritzen ziren, eskola garaian. Olatuak izugarriak ziren, eta ikustera joanez gero, zigortuta.

9. Eskolako zigorak

- **Erref:** DON-011/011
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:25:50. **Bukatu:** 00:29:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia

Laburpena:

Eskolan kaskarrekoak ere jasotzen zituzten noizean behin. Don Juan maisuak belauniko jartzen zituen ikasleak. Bihurriak ere baziren. Tolaretxipiren kontuak: ama nola hil zitzaion, aita kartzelan zegoela; izebak zigortu zuen batean nola egin zuen ihes etxetik.

10. Larunbatetan eskolara

- **Erref:** DON-011/012
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:29:07. **Bukatu:** 00:30:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Urgullera joatea txangoa zen. Ostegun arratsaldetan jai izaten zuten. Larunbatean eskolara joaten ziren: marrazketa zuten, Don Gerardorekin. Zigorak jartzen zituen, eta gezurretako izenak ematen zizkioten.

Transkripzioa

-Eta, Urgull aldera eta juten ziñaten?

-Keba, hori eskursiyua zan! Urgullea, eskursiyua! Atzalde baten eo...

Zeatikan ordun osteun atzaldetan izaten gendun jai, launbatian zan beste eunak bezela. Bai. Launbat atzaldian izaten gendun dibujo, ta gendun maixu bat, hemengo optika bateko langillea zan, ta etortzen zan guri dibujo eakustea, Don Gerardo. Eta harrek zigorak jartzen zituen, hizketan ta hola ta, aber: "[...]", ta apuntatu iten zun, ta ematen zitzaien, ematen zioten abizenak gezurretakok, ta hurrengo launbatian: "Aber, los castigos".

[...] "No ha venido." Ez zegoen abizen hartakoik, ta holaxe, oso gizon ona zan, ta bueno, ez dakit kontuatzen zan o ez baiño...
-Konturatuko zan.
-Ez dakit ba.

11. Lehen gehiago abesten zen

- **Erref:** DON-011/014
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:30:44. **Bukatu:** 00:32:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Etxean ez zuten abesteko ohiturarik, baina tabernan asko kantatzen zen. Erdaraz batez ere, beldur zirelako. Hizkuntza nola aldatu den erakusten duen anekdota, behin Andoni izeneko bezeroak esandakoa. Biraoka askoz gutxiago egiten zen.

12. Elizaren eragina eguneroko bizimoduan

- **Erref:** DON-011/015
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:32:50. **Bukatu:** 00:34:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Doktrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

<p>Elizaren eragina izugarria zen. Eskolara apaizak joaten ziren hitzaldiak ematera, Don Bizente Barrena bikarioa eta. Mezara maisuekin joaten ziren. Neskak ere bai, ia egunero, mojekin. Doktrina, eskolan. Jai erlijiosoak: Koruko Ama, Aste Santua, Pazkoazkoa...</p>

Transkripzioa

-Gero, elizak, izugarrizko indarra zeukan ordun, bai, erabat ezberdiña zan. Beitu, adibidez, guri eskolara apaizak etortzen zitzaizkigun, hitzaldik ematea ta, Don Vicente Barrena, oso famosua zan, San Bizenteko bikarioa. Ta nola zeon eskola ta, hua etortzen zan ta, berebiziko "filipikak" botatzen zizkigun, eta gero, ba, mezeta asko juten giñan, alkarrekin danak, maisukin ta. Oso, eliza esaten dan bezela, "el nacional catolicismo" izugarria zan, izugarria. Adibidez, neskak atzo leihotikan ikusten aitu giñan, estropada bukatuta ta gero, ze, ze giro zeon ta, jesus! Garai baten neskak hola ibilli? Mutillak, ez, ez horrenbeste, baiño, mutillak'e, baiño neskak? Bueno, bueno... Elizara, ta hor, zea, Elizaranekok askotan ba ya, maiatzan ta ya eunero mezeta mojakin ta, beste mundu bat zan. Dotriña ikasten gendun...
-Dotriña, euskeraz ala...?

-Erderaz.
-Dana erderaz?
-Eskolan bakarrik euskeraz ematen zun [...] fitxaje hori, lehen esan detena, horrek euskeraz ematen zun, "este", nola esaten, dotriña bai dotriña. Oain kristau ikasbidea esaten da, ordun dotriña.

13. Erlijioarekin lotutako jaiak

- **Erref:** DON-011/016
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:34:36. **Bukatu:** 00:37:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Jai erlijiosoak: Koruko Amaren Eguna, Aste Santua... Pazkoazkoan, txartelak ematen zituzten elizan, aitortu eta jauna hartzeko. Txartela saski batera bota behar zen. Gaixoei ere eramaten zitzaien Jauna, palioarekin, latinez abesten, Pazkoazkoan. Meza ere latinez izaten zen. Goizeko zazpietako meza, euskaraz.</p>

Transkripzioa

-Eta jai erlijiosuak eta asko izango zian?

-Asko, oain baiño gehigo, bai. Adibidez, azkenekoa, Koruko Aman Eguna jai izaten zan. Eta gero Aste Santun ta, bueno, beste mundu bat zan. Beitu, hiru detaille emango dizkitzut: bat, Pazkoazkoa iten zan, urtian behin, oain hori ya ahaztuta dao, urtian behin ein behar zan, aitortu eta Jauna hartu, Pazkoazkoa deitzen zitzaion. Herritan, txartel bat ematen zan, ta txartelan billa jun behar zan bikariongana, ta iten zun azterketa bat bezela, galdera batzuk erlijionak eta, eta batzuei ez zien ematen. Eta gero berriz bueltau in behar zuen ta horrela. Baiño Donostin ez zan hori, Donostin ematen zituzten txartel batzuk elizan eta hua beteta Pazkoazko itian, apaiza pasatzen zan, orduan ez zan oin bezela, ordun danak illaran belauniko zarri ta apaiza zan moitzen zana. Eta, monagilloa bandeja batekin ta kandela batekin juten zan apaizakin, eta bandeja hori hemen jarri eta ordun ematen zun ahora /ahura/, apaizak Jauna. Eta, txartel hori, Pazkotan, saski baten bota in behar zan, kontrola emateko, jendea nola... Ta nik ezagutu nuen emakume bat, gizona ez zan elizara joaten, baiña botatzen zun gizonan txartela. Gero, adibidez, Pazkoazkoa gaixok izaten zian etxetan, ta iten zan, goizian egun baten, ba haiei Jauna eaman. Paliokin eta soldadukin, bandakin korneta jotzen eta talde bat abesten gelditzen zan atarin, eta iyotzen zan apaiza gaixoai Jauna eman ta jetsita, buelta osoa Alde Zaharren. Bueno, San Bizente parroki bat zan ta oain danok bat gea, eta Santa Mari beste bat, eta bi egunetan iten zan hori. Eta laguntzaillek, kandelakin ta...

-Ta ze abesten zan?

-Erlijioa, latiñezko... gehienak latiñezko.

-Ta meza latiñez izaten zan?

-Bai, bai, bai. Sermoia euskeraz eo, euskeraz, lehenengo, goizian lehenengo zazpitako meza, mezetan euskeraz, beste guztik erderaz, bai.

14. San Jeronimo kalean, denak belauniko

- **Erref:** DON-011/017
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:37:43. **Bukatu:** 00:40:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Aste Nagusian gertatutako pasadizoa: Don Migel Urteaga apaiza gaixo bat bisitatzera joan zen San Jeronimo kalera (ikus mapan); kalea beteta zegoen, baina denak belauniko jarri ziren, tabernakoak barne. Amak gurutzea egiten zion ogiari, jan aurretik.</p>

15. Gurasoen jatorria

- **Erref:** DON-011/018
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 00:40:32. **Bukatu:** 00:41:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Etxeginak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Aita beasaindarra zuen eta ama Ormaiztegiakoa. Donostian asko ziren kanpotik etorritako familia euskaldunak. Aita igeltseroa zen, eta gero tabernari bihurtu zen.</p>

16. Etxea, dirua baino garrantzitsuagoa

- **Erref:** DON-011/021
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:42:52. **Bukatu:** 00:46:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » XIX. Mendea
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

<p>Diruak ez zeukan orain daukan garrantzia: osaba Kubako gerrara bidali zuten, eta berririk ez zenez, hil egin zela pentsatu zuten. Azaldu zenerako, bigarrena zegoen maiorazgo jarrita, gurasoen kargu. Aitak morroi moduan irabazten zuena anaiari eman behar zion. Baserria erre zenean, lan denak utzi, eta denen artean altxatu zuten. Arrieta baserria, Beasainen.</p>

17. Arrantzaleak, serenoak eta munizipalak

- **Erref:** DON-011/022
- **Iraupena:** 0:03:59. **Hasi:** 00:46:31. **Bukatu:** 00:50:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

<p>Arrantzale asko bizi zen Parte Zaharrean. Lokarriak egoten ziren zintzilik eraikinetan, goizaldean txilina joaz arrantzarako abisua emateko. Serenoaren lana nolakoa zen; dendetakoek ordaintzen zuten. Pensioak. Munizipalek bizikletan egiten zuten erronda. Motoa ere erosi zuten, sidecar-arekin; Don Pablo ibiltzen zen harekin, munizipalen burua.</p>

18. Gose garaia, gerraostean

- **Erref:** DON-011/023
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:50:30. **Bukatu:** 00:54:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>"Rurales" izeneko munizipalak Urgullen zebiltzan. Zapata garbitzaileak tabernaz taberna ibiltzen ziren. Kaleko saltzaileak. Gose urteak ziren, eta edozein gauza erosten zen. Diruarekin ere ez ziren gauzak lortzen askotan. Senitarteko batzuen bidez olioia nola lortzen zuten. Estraperloko kontuak. Razionamendua eta ilarak.</p>

19. Intza taberna eta beldurra

- **Erref:** DON-011/024
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:54:18. **Bukatu:** 00:55:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Intza tabernaren historia: jabea fusilatu egin zuten, Hernanin, eta alargunak Bar España jarri behar izan zion izena tabernari, derrigortuta. Beldurra izugarria zen. Orain ere nabari da.</p>

Transkripzioa

-Eta bueno, Intzako hori. Intza hori, urte askotan izena izan du España, Bar España. Eta makiña batei esplikatu diet nik, zeatikan askok: "¿Ahí vamos a

entrar, Bar España?”. Lehenozan Intza, gerra aurretik, eta bertako nausiya afusilatu in zuten Hernanin, eta alargunari berriz taberna irikitzeke jarri zioten baldintza, “Bar España” jartzeko. Oain berriz Intza da, baiño kosta zaie. Lehendabizi in zuten España kendu, geo Bar bakarrik, ta azkenian jarri dute Intza, bildurra izugarriya zan, ta uaindik irauten du bildurra. Beitu, oaingo hauteskundetan nabari da hori, jende edadetua juten da bildurrez, botatzea, botatzen ez badue zerbait gertauko ote zaien eo, jende edadetua oaindik bildurra dauka. Bai bai.

-Hori ez da kentzen...

-Ez da kentzen. Eta hemen beste bat bazan, oain taberna obretan ai dia hemen beheian, este Bar Manolo, garai batean zan Insausti, karo gure pariente iten zan horko nausiya're afusilatu in zuten.

20. Gerran, anaiak borrokara

- **Erref:** DON-011/025
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:55:47. **Bukatu:** 00:58:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gerra iristean, txakur txikia kendu zioten erreketeeke. Donostia erdiak alde egin zuen, erbestera ere bai. Anaia zaharrenak gerran ibili ziren: bata gudari eta bestea Francoren aldekoekin. Plazaolako trenean joan zen anaia bisitatzerara, kartzelara.</p>

21. Tabernako lanak, txakolina eta sagardoa

- **Erref:** DON-011/027
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:59:24. **Bukatu:** 01:02:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

<p>Tabernako lanak. Sagardoa bezalatsu, txakolina ere nonbaitetik ekartzen zen, urtean behin. Getariatik. Txakolinzalearengana joaten ziren aurretik, probatzerara. Botilak eramaten zituzten. Astigarra-Martutenetik ekartzen zuten sagardoa. Aitak sagardotegia izan zuen Moraza kalean. Zizarra, sagardo eginberria. Pitarra, urarekin nahastuta.</p>

22. Puroa erretzeko erritua eta tabakalera

- **Erref:** DON-011/028
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 01:02:39. **Bukatu:** 01:04:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Patxaranik ez zen saltzen tabernetan, koñaka eta anixa bai. Puroa erretzeko erritua nolakoa zen. Farias eta Porras. Tabakalera jende askok lana egiten zuen, arrantzaleen emazteek eta. Taldean bueltatzen ziren bazkaltzera. Lan ordutegia.</p>

23. Taberna ez zen ixten

- **Erref:** DON-011/029
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 01:04:40. **Bukatu:** 01:07:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

<p>Taberna egunero zabalik zegoen. Ordurik gabe ibiltzen ziren lanean neskameak ere. Arratsaldeetan bi ordu jai izatea asko zen orduan. Lo ere taberna gainean. Asegururik ez. Garbitasuna: egurrezko eskailerak belauniko garbitzen ziren.</p>

24. Hondartza eta turismoa

- **Erref:** DON-011/030
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 01:07:15. **Bukatu:** 01:09:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

<p>Donostiako jendea goizean goiz bainatzen zen hondartzan. Udatiarren kontuak. Turismoa: lehenengo kanpotar aberatsak eta gero arrunta ere bai. Haiek pensioetan egiten zuten lo. Garai bateko hotelak. Orain hotel gutxiago daude; tabernak, berriz, gehiago.</p>

25. San Geronimo kaleko tabernak

- **Erref:** DON-011/031
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 01:09:39. **Bukatu:** 01:12:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Lanbideak » Negozioak, dendak

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>San Geronimo kalean zeuden tabernak: asko zeuden, baina ixten joan ziren. Francoren garaiko istiluak. Grixak, ke poteak. Taberna uztea erabaki zuten. Diputazioan plaza atera zuen, eta 20 urtean ibili zen han.</p>

26. San Sebastian, Aste Nagusia, estropadak

- **Erref:** DON-011/032
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 01:12:15. **Bukatu:** 01:15:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Zezenak
- Aisia » Kirola » Uretako kirolak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Festak. San Sebastian eguna eta danborradak: bandera kontzerjeak jaisten zuen, eta Fermintxok armonika jotzen zuen; gero hasi ziren txistulariak. Oso gutxi ziren danborradak lehen. Zezenak eta su festa, gauza gutxi Aste Nagusian. Estropadetan arrantzaleak-eta izaten ziren. Diruak hondatu egin ditu kirolak.</p>

27. Francoren eragina ospakizunetan

- **Erref:** DON-011/033
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 01:15:48. **Bukatu:** 01:18:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
- Aisia » Kirola » Uretako kirolak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

<p>Estropadetako bandera Francok berak ematen zuen. Franco Donostian zegoenean, jaiak desberdinak izaten ziren: bandera espainolak edonon, tabernak itxi behar, balkoietara irten ezin... Salbean, desfilea egiten zuen Francok, eta Santa Marian gonbidapenarekin sartu behar zen, ate txikitik.</p>

28. Dantza egiteko tokiak

- **Erref:** DON-011/035
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 01:20:23. **Bukatu:** 01:22:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak

Laburpena:

<p>Igandetan, dantza izaten zen Igeldoko jolas-parkean, Gros frontoiaren azpian eta Principe Saboya hotelean (ikus mapan). Loiolan ere bai, Txomiñenean, Erreterian eta Hernanin ere bai... Abestia atera zuten.</p>

29. Dena bekatu zen

- **Erref:** DON-011/036
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 01:22:28. **Bukatu:** 01:26:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kongregazioak
- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>Dena bekatu zen lehen. Gauerditik aurrera baraua egin behar zen, eta Jauna hartu aurretik ezin zen urik edan ordubetea. Santa Mariako aitorlekuak. Astero konfesatu behar zen. Kongregazioak. Lokalak behar ziren elizako gazteentzat. Mutilek laugarren igandean meza zuten. Aste Santuan ezin zen abestu, eta prozesioak zeuden.</p>

30. Zinema aretoak

- **Erref:** DON-011/037
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 01:26:02. **Bukatu:** 01:29:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

<p>Ezagun batzuen anekdota, ezkon-bidaian Parisko Moulin Rougera joateko baimena eskatu ziela Santa Mariako Don Eusebio apaizari. Klean musuka ibiltzea eskandalua zen. Zinema aretoetan egoten ziren bikoteak. Orduko zinema aretoak zeintzuk ziren kontatzen du. Antzerkia ere asko egoten zen. Astean hirutan joaten zen zinemara. Miramarren hasieran 9 pezeta balio zuen sarrerak. "Sesion continua" egitea ere modan zegoen.</p>

31. Tabernan, Francoren argazkia eta partea

- **Erref:** DON-011/038
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 01:29:44. **Bukatu:** 01:31:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Tabernan Francoren argazkia jarri behar izaten zuten. La Ser irratian ematen zuten partea, eta zutik jarri behar zen. Derrigortu zuten tabernetan irratia izatea. Anaiak 600 pezetan erosi zuen irratia.</p>

32. Gobernuak tabernariei jarritako zergak

- **Erref:** DON-011/040
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 01:31:59. **Bukatu:** 01:35:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Auxilio Socialera joaten zen jendea, bazkaltzera, Mirakruz kalera. Tabernei kartoizko txartelak ematen zizkieten, dirua eskatzeko harako. Pilarreko basilikako lurra ere Euskal Herriko tabernariek ordaindutakoa ei da. Eskubitar zintzoak ere bazirela dio; koronel mozkorraren pasadizoa.</p>

33. Txistea, giro politikoaz

- **Erref:** DON-011/041
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 01:35:30. **Bukatu:** 01:37:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Politikarekin lotutako txistea: bere buruaz beste egin nahi zuen gizonarena.</p>

34. Franco Donostian zenean, atxiloketak

- **Erref:** DON-011/043
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 01:37:10. **Bukatu:** 01:39:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Alderdi politikoak: EAJ, CNT... Etxerik etxe egiten zituzten bilerak, isilpean. Franco zetorreanean, batzuk atxilotu egiten zituzten beti. Nola igartzen zen Franco etorri zela: Gipuzkoa plazako bi zisne Aieteko jauregira eramaten

zituzten. Inork ez zuen uste errejimena aldatuko zenik. Abertzaleak baziren propaganda egiten, baina indarrak ez.</p>

35. Isilpeko ikastolak eta Elbira Zipitria

- **Erref:** DON-011/044
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 01:39:58. **Bukatu:** 01:43:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Politika » Euskara eta politika
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Euskara ahaztu egin zuen ia. Elbira Zipitria izan zen bere umeen andereñoa, isilpeko ikastoletara bidali zituzten. Hala hasi ziren euskaltzaletasuna berreskuratzen. Zipitria erretiratu zenean, guraso talde batek dirua batu zuen harentzat. Legezko lehenengo ikastola Santa Maria parrokiako ganbaran jarri zen (ikus mapan); gotzainak bedeinkatu zuen. Ondorengo ikastolak.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2024-04-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com